

Agitazio eta ignizio dispositiboak El Presentimentaren - 666.0 Bertsioa ERABILERA-ESKULIBURUA

1. Deskarga eta inprima ezazu orria (hobe lanean bada, bizio hori dutenetakoa bazara).
2. Deklama ezazu ozenki leku publiko gertuenean (ariketa aerobiko honi #HitzaHartzea deitzen diote Ulan Batorren).
3. Bueltatu ezazu orria (operazio zail honekin #OrriHuts bat lortuko duzu).
4. Banan bana zure arbasoen izenak idatz itzazu bost antxoak marken aldamenean.
5. Saia zaitetz pentsatzen.
6. El Presentimentaren tintak sustantzia errekorak dauzka, egin ezazu paper bola bat eta pegatu ezazu zure lehen ministro gogokoaren kobxepean. Pipak jaten dituzela itxaron dezakezu aireeratzen den arte.
7. Behin eta beriz saiatu zaitetz pentsatzen.
8. Zoriz aukera ezazu El Presentiment bat eta eraikuntza publiko bateko harrerako sofa batean erre ezazu, edo partido politiko edo sindikatu baten kide den lagun baten etxean (operazio hau behar bezain beste errepika ezazu #BarneSua eta #Gorrotolibrea lasaitzen diren arte).
9. Pentsatzen saiatzen jarraitu izpilu baten aurrean zure Nlak eragiten dizun ikaragatik oihu egin arte.
10. El Presentimentez egindako paper bolez forra ezazu burua. Edozein lekutatik jauzi dezakezu zure burua orain, okasiorako El Presentimentaren ale ilustratu batekin eginiko paperezko abioi bat segituaz.
11. Ikusentzuleak, tertulianoak, periodistak eta beste edozein astakirten agur itzazu erortzen zaren bezela. Txukundu ezazu zure postura (hau #PosizioaHartzea bezela ulertzen dena da).
12. 10 ezezagunei El Presentimenta bidali iezaiozu posta bidez, edo kasua kasu Belgikar Kongoko Lertxun Zurinari.
13. Astindu ezazu El Presentimenta kotxeke lehiotik ateraz ahal eta abiada handienean zoazela eta ohikatu ezazu "Merkatua nire artzaia da, ez zait ezer falta". Gertuen duzun farmazira zuzendu zaitetz orduan antidepresiboren bat edo hortz pasta erostera (Esaten dute horrela #BizitzerenMobilizazioGlobalera gerturatuko zarela).
14. Buruko mina eduki arte pentsa ezazu, belarriak zuritu edo hankak trentzatuaz eguzkira begiratzen uzten ez dizun armiarma-sare bat formatzen duten euliak ikusten hasten zaren arte (oraindela urte batzuk jada insektu gertaera izugarri honi #GauekoPolitika deitu izan zioten).
15. El Presentimentak egitasuna du, iturri-kodean idatzirik birus indartsu bat. Milioi bat harpide lortzen ditugunean lokartutako birusa aktibatu egingo da internet guztia deskonektatuaz. Orduan mundu guztiko kajeroek #DohainekoDirua jarituko dute eta alemaniako altxor bono guztiak 9.999.999 familia pobreenen eskuetara pasako dira (honek #Gestikulazioa ez dela baizik eta #GestuRadikal batetaz ari garela frogatzeko balioko du).
16. Fidelitate erlijiosoz pausu guzti hauek eginen bat dituzu Presentiment batek zer duen aurrenentitzeko hasteko moduan sentituko zara (hurrengo atalera pasatzeko prest izango zara: #Organiziora).

El Presentimentak aurrenentitzeko balio duenaren aurrenentipena du

